

XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5251

HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 101/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logelei buruzkoa.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak ikusi dira Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logelei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretuaren II. eranskinean (2018ko uztailaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 143. zenbakia); beraz, eranskin hori osorik argitaratzen da berriz:

II. ERANSKINA, UZTAILAREN 3KO 101/2018 DEKREUARENA

IKUR BEREIZGARRIAK

Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitzetako gelen ikur bereizgarriak metalezko piezak izango dira, edo hura bezain zurruna den beste material batez eginak, non agertuko baitira, hurrenez hurren, VT (erabilera turistikoko etxebizitza) edo HT (erabilera turistikoko logela) siglak, eta jarraian adierazitako legenda, beheago aipatutako zehaztapen teknikoei egokituta.


1.– Osorik lagatzen den etxebizitzaren kanpoko plaka.

Osorik lagatzen diren etxebizitzetara kanpoko plaketan, VT siglen ondoren, legenda hau agertuko da: «Vivienda para uso turístico-Erabilera turistikoko etxebizitza», baita etxebizitza bakoitzaren solairu zenbakia eta eskua edo letra ere.



2.– Logelaka lagatzen den etxebizitzaren kanpoko plaka.

Logeletan lagako diren etxebizitzaren kanpoko plaketan, HT siglen ondoren, legenda hau agertuko da: «Habitación para uso turístico-Erabilerak turistikoko logela», baita logelak dauden etxebizitzetako solairu zenbakiak eta eskua edo letra ere.



3.– Osorik lagatzen den etxebizitzaren barruko plaka.

Osorik lagako diren etxebizitzaren barruko plaketan, VT siglen ondoren, legenda hau agertuko da: «Vivienda para uso turístico-Erabilerak turistikoko etxebizitza».



4.– Logelaka lagatzen den etxebizitzaren barruko plaka.

Logeletan lagako diren etxebizitzaren barruko plaketan, HT siglen ondoren, legenda hau agertuko da: «Habitación para uso turístico-Erabilera turistikoko logela».



ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Tipografia: Bondoni

Markoa: Gris kolorea. Pantone Cool Grey 9C

Plakaren barrualdea: Zuri kolorea

Letrak: Gris kolorea. Pantone Cool Grey 9C